



EPAIBIren eta IVAPen zeregina administrazioaren zein justiziaren alorrean euskara normalizatzeko prozesuan

Irakasgaia: Euskararen Arauak eta Erabilerak Arlo Juridikoan

Pedro DEL POZO CACERES eta Unai MATEOS ARRESEIGOR

AURKIBIDEA: I. Sarrera: 1. EPAIBI eta IVAP zer diren: 1.1. IVAP, euskararen erabilera EAEko herri-administrazioan normalizatzeko erakundea. 1.2. EPAIBI: EAEko Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko zerbitzua - **II. EPAIBI eta IVAPen euskara normalizatzeko ekintzak:** 1. IVAPen ekintzak. 2. EPAIBIren ekintzak - **III. Ekarpenak:** 1. IVAPen ekarpena. 2. EPAIBIren ekarpena. - **IV. BI ERAKUNDEEN GARRANTZIA DATOZEN URTEEI BEGIRA. - Bibliografia.**

I. Sarrera

1. EPAIBI eta IVAP zer diren

Gaur egun, Euskal Herrian biztanleriak arlo desberdinetan euskara erabiltzeko duen gaitasuna gero eta handiagoa da euskaraz hitz egiten dakien pertsona kopurua urtetik urtera handitzen delako eta euskara gero arlo gehiagotan erabili daitekeelako.

Hala ere, gaur egun Euskal Herrian administrazio guztien aurrean euskaraz hitz egin ahal izateko eskubidea ez dago bermatuta eta euskararen normalizazioa lortzeko administrazio desberdinekin euskaraz hitz egin ahal izateko eskubidea ziurtatzea beharrezkoa da. Hau aurrera eraman ahal izateko, erakunde desberdinak daude baina horien artean bi erakundek garrantzia berezia dute hauek EPAIBI eta IVAP direlarik.

Administrazioiko edozein langileri euskaraz hitz egiteko eskubide hori Euskal Herriko lurraldeetan desberdina da, lurralde bakoitzak modu desberdinerara jarduten duelako arlo honetan, nahiz eta azkeneko urteetan elebidun kopurua asko handitu den.

1.1. *IVAP, euskararen erabilera EAEko herri-administrazioan normalizatzeko erakundea*

IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea da. Eusko Jaurlaritzaren oraingo Herri Administrazioa eta Justizia Sailari dago atxikia. Bereizgarria da uztailaren 27ko 16/1983 Legeak IVAPen egiturari eta zereginei buruzko alderdi esanguratsuak zehazten ditu; euskal administrazio publikoen jardunerako bereziki garrantzitsuak diren hiru eremuren inguruan biltzen dira¹:

- Herri-administrazioen zerbitzurako langileak hautatzea eta prestatzea.

¹ http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vedorok/eu/contenidos/informacion/ivap_general/eu_3795/info_eus.html





- Herri-administrazioen zerbitzurako langileen euskalduntzea, itzulpenak, interpretazioa, terminologia eta administrazio-hizkeraren normalizazioa.
- Ikerlanak egitea eta eskolak ematea, bai administrazioaren inguruan, era zabalean, bai euskal autonomiaren berezitasunen inguruan zehazki, eta baita liburuak zein aldizkari espezializatuak argitaratzea ere.

IVAPen helburua funtsean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin lankidetzan aritzea da, herritarrei ematen dieten zerbitzua eraginkorragoa, efizienteagoa eta elebiduna izan dadin lortzeko. Lankidetzan hau zerbitzu publikoaren balio komunetan oinarritzen da: berrikuntza eta etengabeko hobekuntza, bezeroarenganako orientazioa, euskararen erabilerarekiko konpromisoa, ingurumena zaintzea, parte-hartzea eta komunikazio eraginkorra, pertsonak errespetatzea, proaktibotasuna, profesionaltasuna, talde-lana eta zerbitzu publikoaren jarrera.

IVAPen kontuan hartu behar dugu eskaintzen diren zerbitzuen zenbatekoa oso zabala dela, baina euskararen alorrari begiratuz, honako zerbitzuak ditu eskuragarri: Euskara ikastaroak, berariazko hizkuntza prestakuntza, hizkuntza eskakizunak, itzultzaileen zerbitzu ofiziala, argitalpenak eta euskaraz lan egiteko baliabideak.

Alabaina, hurrengo atalean sakonago aztertuko dugu zertan datzan bere lanak.

1.2. EPAIBI: EAEn Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko zerbitzua

Epaibi (Justizia Administrazioako Hizkuntza Normalizazio lantaldea) epaitegietako euskararen erabilera normalizatu bultzatzen duen taldea da. Helburu nagusia Justizia Administrazioarekiko harremanetan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea da. Hau lortu eta bi hizkuntza ofizialak erabili ahal izateko honako lanak burutzen ditu Epaibik:

- Ele bietan sortzen diren agirien kopurua handiagoa izan dadin lan egiten du.
- Prestakuntza eskaintzen die epaitegietako langileei ahoz zein idatziz euskara erabil dezaten.
- Euskaraz lan egiteko laguntza-tresnak garatzen dituzte.²

Laburbilduz, herritarrek Justizia Administrazioan hizkuntza eskubideak egikaritu ahal ditzaten lan egiten dute.

Lantaldea alor ezberdinetako pertsonak osatzen dute: hizkuntza-normalizazioaren alorreko pertsonal teknikoak, dinamizazioaren eta hizkuntza-prestakuntzaren alorrekoak, itzulpengintzaren alorrekoak eta informatikaren alorrekoak. Honela zehazten dira eginkizun horiek EPAIBIren webgunean.³

- **Hizkuntza-normalizazioko teknikarien lantaldea:** normalizazio-proiektua gidatzen du, jarraibide orokorrak zehazten ditu eta lortutako emaitzen jarraipena egiten du.
- **Dinamizazio- eta prestakuntza-lantaldea:** euskararen erabilera areagotzeko sustapen-eta motibazio-lanak burutzen ditu, funtzionarioen hizkuntza-trebakuntzan indar berezia eginez. Euskara-eskolak ematen dituzte, hizkuntza juridikoko eskolak barne, hizkuntzaren

² <http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/euskaralegebidean/euskararen-biziberritzea/>

³ <http://www.justizia.net/epaibi>





inguruko kontsulta-zerbitzua eskaintzen dute, errotulazio elebiduna zaindu, euskarazko aplikazio informatikoen erabilera sustatu, etab.

- **Itzultzaileen lantaldea:** bulego judizialean erabiltzen diren agiriak itzultzen ditu, baita itzulpena behar duten epaitegietako sarrera- edo irteera-agiriak ere. Horrez gain, epaitegietan erabili behar den euskarazko terminologia juridikoaren gainean aholku ematen du.
- **Informatikarien lantaldea:** bi hizkuntzetan kalitatezko lana egiteko bide emango duten tresna eta aplikazio informatikoen garapenez eta horien mantentze-lanaz arduratzen da.⁴

Azaletik azalduta bere eginkizun guztiak aipatzea ezinezkoa denez, hurrengo atalean jarraituko dugu honi buruz hizketan.

II. EPAIBI eta IVAPen euskara normalizatzeko ekintzak

1. IVAPen ekintzak

IVAPen zereginari dagokionez, euskadiko Herri Administrazioekin lankidetzan aritzea, herritarrei ematen dieten zerbitzua eraginkorragoa, efizienteagoa eta elebiduna izan dadin lortzeko. Lankidetzak hau zerbitzu publikoaren balio komunean oinarritzen delarik, eta honako hauen bidez gauzatzen dute:

- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzurako langileak hautatu.
- Euskadiko Herri Administrazioetan diharduten langileei etengabeko prestakuntza eman.
- Administrazioan euskararen erabilera normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak egin eta lege- eta administrazio-arloko euskarazko terminologia landu.
- Hizkuntzari, legeari eta administrazioari buruzko aholkularitza eman eta arlo horietan ikertu⁵.

Bi erakundeak administrazioan euskararen normalizazioan lana egiten dute, baina bakoitzak bere modura. Argi geratu den bezala EPAIBIk gehiago jarduten du euskaraz dauden zerbitzuen eskaintza handitzean eta justizia administrazio arloarekin lotura duten pertsona guztien sentsibilizazioa lortzean. Bestalde IVAPek, zuzenean administrazioeko langileen hautatze eta prestakuntzan lan egiten du, hauek ematen dituzten zerbitzuak elebidunak izan daitezten.

2. EpaiBiren ekintzak

Gaurko egunez, EpaiBik 400.000 testu itzulpen baino gehiago egin ditu. Horien artean: epaitegietako lexikoa, legeak, dokumentu judizialak edo epaiak. Esan daiteke bere ekarpenik garrantzitsuenaz azken urteetan, sarreraren aipatutakoaz gain, e-Toolbar⁶ dela. EpaiBik garatutako abokatuentzat euskaraz lan egiten laguntzeko tresna da. Hau bulegoz bulego instalatzen da eta dagoeneko zenbait euskal abokaturen onspena jaso du. Esan beharra dago tresna honen bitartez, abokatuek errazago egin ahal izango dituzte euskaraz epaitegira zuzendu beharreko demanda, errekurso eta gainontzeko idazkiak.

⁴ <http://www.justizia.net/epaibi/testua?id=1241023008274>

⁵ http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vedorok/eu/contenidos/informacion/ivap_general/eu_3795/misioa_e.html

⁶ <https://www.youtube.com/watch?v=jildockycTw>





Tresna honetan, euskara juridikoaren gaineko 400.000 itzulpen-unitate baino gehiago aurkitu ahal izango dituzte abokatuek (legeak, epai zein epaitzak, eredu judizialak, epaitegietako lexiko bateratua...). Eta ez hori bakarrik, abokatuek erabiltzen dituzten formulario juridiko asko dago bertan (bukatutakoan 1.000ren bat izango dira).

Auzia Euskaraz⁷ proiektuari dagokionez, bere helburu nagusia auziak osorik euskaraz izapidetu ahal izatea da EAEko edozein epaitegitan.

Azkenik, esan behar da Epaibik baliabide gehiago ere badituela, hala nola Youtubeko kanala, Twitter kontua edo bloga, denak ere oso erabilgarriak. Zeresanik ez iOS eta Android sistementzat atera duten mugikorreko aplikazioari buruz, informazio guztia uneoro eskuragarri eduki ahal izateko.

III. Ekarpinak

1. IVAPen ekarpena

IVAPen lan esparrua oso zabala da, ondorioz, euskarari dagokion atalean kokatuko gara. Hemen atal ezberdinetan sailkatua dagoela ikus dezakegu eta honek ekarpen ezberdinak egiten ditu.

1. **Euskara ikastaroak:** IVAPek euskara ikastaroak antolatzen ditu Eusko Jaurlaritzako eta bere erakunde autonomoetako langileentzat. Horiez gain, IVAPekin Lankidetzaz Hitzarmena duten erakundeetako langileentzat ere antolatzen dituzte. Hauek hizkuntza eskakizunak prestatzeko izan ohi dira.⁸
2. **Berriazko hizkuntza prestakuntzak:** Prestakuntza hau administrazioko langileei zuzentzen zaie. Honen helburua eguneroko lanean dituzten hizkuntza eragozpenak gainditzeko laguntzea da.⁹
3. **Hizkuntza eskakizunak:** Administrazioan dauden hizkuntza eskakizunei buruzko informazioa ere ematen du azterketekin, informazio orokorra, deialdiak edota hautaketa prozesuekin. Horretaz gain Az/ernet eskaintzen du (Interneteko aplikazio informatikoa da hizkuntza-eskakizunen inguruko tramiteak online egiteko).¹⁰
4. **Itzultzaile zerbitzu ofiziala (IZO):** Askotariko aukerak eskaintzen ditu. Adibidez: itzulpen, berrikuspen edo interpretazio saio baten eskaera egin daiteke. Horretaz gain, legedia euskaraz topatu dezakegu hemen.¹¹
5. **Argitalpenak:** Lehenik eta behin Administrazioa Euskaraz Aldizkaria eskaintzen zaigu. Horretaz gain zenbait argitalpenen bertsio digitalak ditugu eskuragarri. Horien artean euskararen erabilerarako ezinbestekoak izan daitezkeen *IVAPeko estilo liburua* (http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf), Zalantza dantza edo Komunikazio elektronikoa. IVAPen gomendioak web orriak-idazteko.¹²

⁷ <http://www.auziaeuskaraz.eus/>

⁸ http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vedeuik/eu/contenidos/informacion/informazio_orokorra/eu_euskara/euskara_ikastaroak.html

⁹ http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vedhp/eu/contenidos/informacion/erabiler_a_plana_prestakuntza/eu_info_oro/informazio_orokorra.html

¹⁰ <http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vhe/eu>

¹¹ <http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vizo/eu/>

¹² http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vedargeu/eu/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/index.shtml





6. **Euskaraz lan egiteko baliabideak:** Euskararekin eta euskaraz lan egiten duen pertsona ororentzako ezinbesteko lanabesak ditugu. Horien artean izendegiak eta glosategiak, terminologia eta Euskalterm. Ezinbestekoa zaigu azken honi buruzko aipamen bereziren bat egitea. Euskalterm terminologia banku publikoa dugu. Hemen esparru profesional ezberdinetako hitzen edota esaldien itzulpena aurkitu ahal izango dugu gehien komeni zaigun eremuan duen adiera egokienarekin.¹³

2. Epaibiren ekarpena

EPAIBIren hizkuntza normalizatzeko proiektuaren helburuak lortzeko bost jardueratan lan egiten du, nagusiki:

Lehengoari dagokionez, euskarari garrantzi gehiago eskaintzea, horri hedapena ematea eta euskara erabiltzea bai herritarrarekiko harremanetan bai eguneroko lanean. Horretarako, Justizia Sailaren, Justizia Ministerioaren eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren artean hainbat ekimenen gaineko adostasuna lortzeko ahaleginak egiten dituzte.

Bigarrenik, euskarazko zerbitzuen eskaintza zabaltzea herritarrak eta profesionalak euskara erabiltzera bultzatzeko, hau modu desberdinetan gauzatzen dutelarik:

- Euskarazko terminologia juridikoa garatzea eta hedatzea.
- Euskarazko idatzizko agiriak euskaraz normalizatzea eta horien erabilera bultzatzea.
- Informatizazio-prozesuan euskara-irizpidea sartzea.
- Epaitegien barne-egituraketan eragitea lantalde elebidunak bultzatzeko.
- Herritarrek Justizia Administrazioarekiko harremanetan euskara erabil dezaten bultzatzea.

Hirugarrenik, Justizia Administrazioako langileek euskara erabiltzeko duten inplikazioa handitzea.

- Hizkuntza-eskakizunak esleipenean parte hartzea.
- Justizia Administrazioako langileak euskaran trebatzea.
- Euskarazko laguntza-materiala sortzea, bai prestakuntza-materiala bai lan-tresnak.
- Euskaldunak ez diren langileak inplikatzeko epaitegietan euskara erabil dadin.

Laugarren jarduerari dagokionez, epaileen, fiskalen eta Justizia Administrazioaren letraduen artean euskararen normalizazioaren aldeko jarrera sustatzea.

Azkenik, abokatuen elkargoetako kideak sentsibilizatzea eta gaitzea, hizkuntz gaikuntzarako hitzarmenen bitartez, eta euskaraz lan egitea errazten duten tresnak sortu eta abokatuek horiek erabil ditzaten bultzatzea¹⁴.

¹³ <http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vizo03/eu/>

¹⁴ <http://www.justizia.net/epaibi/testua?id=1241023007562>

Jarduera guzti hauek hitzez hitz hartuak izan dira EPAIBIren web orrialdetik



IV. BI ERAKUNDEEN GARRANTZIA DATOZEN URTEEI BEGIRA

Datozen urteei begira azken urteotan egin den lanari berrespena eman nahi zaio. Jakin badakigu Euskal Autonomia Erkidegoan Euskara hizkuntza ofiziala dela. Ondorioz, Epaibi zein IVAPen paperak berebiziko garrantzia hartzen du. Bakoitzak bere esparrua landuz edo zenbait ataletan elkarlanean, ezinbesteko bi bultzatzaile ditugu hemen.

Epaibik lege testuen itzulpenarekin egin duen lana azpimarragarria da. Horrek sekulako erabilgarritasuna ematen dio euskarari justizia zein administrazioaren eremuan adibidez demandak tarteratzerako garaian edo seme edo alaba baten izen ematea erregistroan egiterako garaian.

IVAPek bestalde, euskara ikastaroen bitartez administrazioan lan egingo duten edo lan egin nahi duten profesionalak prestatzen jarraitzea ezinbestekoa da.

Aztertu ditugun bi erakunde hauen zerbitzuez gain ordea zerbait gehiago behar da erabateko normalizaziora heltzeko. Datuak gero eta hobeak dira, adibidez, epaitegien sartu irtenetan dabilzan testuen erdiak bi hizkuntzetan ematen dira. Horretan eragile zuzen izan dira IVAP zein Epaibi, esan bezala, bakoitza bere esparruan.

Gizartekoak bitartekoak falta dituenik ezin esan dezakegu, nahiz eta oraindik lan asko dagoen egiteko. Gehienbat hezkuntza kontua dela esango genuke. Gizartea berriz heztea beharrezkoa da, administrazioa zein justizia alorrean euskara erabateko normaltasunez entzun dezagun.

Bi eragile hauez gain faktore askoren azterketa batean sartuko ginateke eta hauen bilakaera zein izango den jakitea ezinezkoa da. Beharbada epaile eta magistratuen euskararen jakintza funtsezkoa izango da datozen urteetan euskara epaitegietan erabateko normaltasunez entzun ez ezik, gaztelaniari gailendu ahal izateko. Horretaz gain, goi karguen eta goi mailako teknikarien kasuan ere, garrantzitsua euskara maila jaso izatea, herri-administrazioak euskara lan-hizkuntza gisa izan dezan.

Funtsean esan dezakeguna da, datozen urteetan euskararen normalizazioak azken urteotan erakutsi duen bilakaera positibo hau jarraitzen badu, Epaibi zein IVAPek berebiziko garrantzia izango dutela. Orain arte ezinbesteko lanabesa izan dira administrazioan zein justizia eremuan euskara normalizatzeko, eta argi dago aurrerantzean ere horrela izango dela.

Amaitzeko, bi erakunde hauen lanari Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (HEBP) gehitu diezaiokegu. Hau, hainbat lantaldek aurreko urteetan garatutako adoste prozesuaren emaitza da eta ikuspegi zientifikoa, akademikoa eta gizartearen ikuspegia biltzen ditu. Hizkuntza gutxituen egoera irauli eta hizkuntza komunitateen arteko berdintasunean oinarritutako Europa eraikitzeke tresna. Hortaz, proiektutik sortutako ondarea, protokoloa, nazioarteko foro eta instantzietara eramango da izaera anitzeko erakundeek hizkuntza aniztasunarekiko duten konpromisoaren arautzaile gisa erabil dezaten.¹⁵

¹⁵ http://protokoloa.eus/?page_id=296





Bibliografia

- <http://www.ivap.euskadi.eus/>
- <http://www.justizia.net/epaibi>
- <http://www.auziaeuskaraz.eus/>
- <http://blog.justizia.net/e-toolbar-la-herramienta-para-que-abogados-y-abogadas>
- http://www.ivap.euskadi.eus/r61vedorok/eu/contenidos/informacion/ivap_general/eu_3795/misioa_e.html

